

Neurketa baten aurrean

Euskaldunon Egunkaria, 1996-11-17: 3.

Gaur betetzen ari naiz 75 urte. Nere bizi osoko lana zutabetxo honetan balego legez. Zer nota emango luke neurriak paradisorako bidean? Eman dezagun hizkiz betetako zakutxo hau dela nere azken neurria, eta derrepentekoa izaki. Zer idatzi behar nuke gaur hemen aprobatuarekin irteteko? Bat. Aipatu beharko dut bahiketa? Eta ez bestaldera begira jarri! Askatasunaren aurkako delitua da, aitortu behar dut, gainera. Egia da kazetaria ez dela epailea, ezta polizia ere, baina zerbait gehiago egin dezaket: bada hainbat gauza prentsan defentsa behar duena. Bat, bahitua ondo tratatu dezatela, bai, preso dagoenak dagoeneko nahikoa du eta, denak ongi tratatuak izan daitezela presoak nahiko karga badu preso egotearekin eta. Lege berak dio nioen bezala, preso politikoek badituzte bere defentsa bideak, eta hauek osorik aplikatu behar dira gaixotasunetan, senideengandik ahal den gertuen gordez. Oso gaixo daudenak, bestalde, askatasunean jarritz.